| NAN anonimizatua | 1. emateko oharrak | 1. emateko notak | 2. emateko oharrak | 2. emateko notak |
|---|---|---|---|---|
| ***1494**<br>***3171**<br>***8402** | ·Hobeto bereiztu zer den egungo egoeraren informazioa eta zuek proposatutakoa. | Ongi/Oso ongi | ·Irudiaren plano bat gehitu, zenbait erabaki hobeto azaltzeko.<br>·Oinezkoen kaleak bereiztu.<br>·Tipologia-ereduak gehitu (adibideak, bai etxeenak bai ekipamenduenak, frogatzeko partzela eta sakonera horietan halakoak egin daitezkeela). | Ongi |
| ***3557**<br>***6009**<br>***3448** | ·Eremua ondo mugatu, ukitzen ez dituzuen partzelak kanpoan utziz. | Ongi/Oso ongi | ·Antolamendu ona (akaso ez zenukete Boulevard erdia bota beharko).<br>·Ezberdindu irudi-planoa eta kalifikazio-planoa.<br>·Etxe-tipologia ez da egokia etxe kolektibo moderno baterako (etxe bakarra solairu bakoitzeko?). | Oso ongi |
| ***9816**<br>***1414**<br>***2171** | ·Zaindu gehiago aurkezpena (ezin da post it bat sartu emate batean).<br>·Oreitiasolo osoa ez da "komertziala", "produktibo/industriala" baizik. | Ongi/Oso ongi | ·Antolamendu ona, zurrun samarra bada ere.<br>·Bide-sarea birpentsatu daiteke (leku guztietara iritsi behar dira autoak?).<br>·Uste dut mendebaldeko lotura hobegarria dela. Ekialdean, halaber, beste loturaren bat plantea liteke Salburuako Izarra auzoarekin.<br>·Ezberdindu irudi-planoa eta kalifikazio-planoa. | Oso ongi |
| ***7512**<br>***4203** | ·Ondo dago erabilera-zerrendena, eskema moduan (dena den, ez izan beldurrik aberasteko/nahasteko). | Ongi/Oso ongi | ·Ondo pentsatu bide-sarea (nondik nora doazen kaleak…).<br>·Badirudi espazio libre gehiegi dagoela, eta formarik gabea.<br>·Kontuan izan IDarte diseinu-eskola. | Nahiko/Ongi |

**Betoñuko 3 taldeentzako oharrak**

·Iparrera dagoen zona ere (pixkat) aztertuko beharko litzateke.
·Betoñuko herrixka pixkat "babestu" liteke (buffer berde baten bidez, eskala-aldaketa baten bidez…
·Garraio publikoaren (BEI, tranbia…) geltokiak hiri-diseinurako erabili.
·Arreta berezia jarri hegoaldeko biribilgunearekiko erlazioan (biribilgunea aldatu daiteke).
·Salburuarekiko hiri-harremana ere zaindu.

**Guztientzako oharrak**

·Sekzioetan eta 3Detan solairuen marrak adierazi.
·Ondo ezberdindu irudiaren planoa ("polita", itzalekin nahi bada, partzelen marrarik gabea, zuhaitzekin, bankuekin eta abar, loteslea ez dena…) eta kalifikazio xehatuaren planoa (teknikoa, zehatza, partzelaz partzela erabilera nagusia adierazten duena, loteslea dena…). Adibide bat, Jundizkoa: hau litzateke kalifikazio-planoa (https://tinyurl.com/yap7pjrn) eta hau irudiarena (https://tinyurl.com/5e7sar4e).
·Ingurua ere eralda daiteke, hiri-harremanak hobetzeko.
·Kalifikazioan ezberdindu sistema orokorrak (hiri mailakoak) eta tokiko sistemak (auzo mailakoak).
·Tipologia-ereduak gehitu (adibideak, bai etxeenak bai ekipamenduenak, frogatzeko partzela eta sakonera horietan halakoak egin daitezkeela).

**Guztientzako oharrak**

·Dena eraitsi eta eraberritzen bada, ez da beharrezkoa/logikoa aurretik zegoen kale-sarea mantentzea.
·Kaleen hasieran eta amaieran gertatzen denaz ohartu (zer ikusten den, zer dagoen...).
·Eskuz marrazteak ez du esan nahi ez denik zehatz (edo zehatz samar) marraztu behar.
·Egungo erabilera (ofizialak) HAPOan ikus daitezke, erabilera xehatuen orrietan: https://tinyurl.com/3cenwdrc